

Oiongo Udala

HAPOn 11. aldaketan herritarrek parte hartzeko programa onestea

Oiongo Udalaren osoko bilkurak erabaki zuen HAPOn 11. aldaketa puntuala idaztea eta bultzatzea eta herritarrek parte hartzeko programa eta horren laburpena argitaratzea.

Antolamendu xehatuko eremua: oinarrizko azpiegituren eta hondakin solidoak (H.4), ez-arriskutsuak eta geldoak ezabatzeko azpiegituren eremua, lurzoru urbanizaezinean, kategoria definitu gabeen. Programa oso-osorik udalaren web gunean argitaratuko da: www.ayuntamientodeoyon.com. Erreferentzia: Bo240313A.

Herritarrek parte hartzeko programaren laburpena

— Hasieran onetsitako dokumentua jendaurrean jartzea, ALHAOn eta lurraldean gehien saltzen den egunkarian argitaratuz, berrogeita bost egun baliioduneko epean, azken argitalpenetik zenbatzen hasita.

— Egoitza elektronikoa eta egokitzat jotzen diren gainerako komunikabideetan argitaratzea. Hasierako onespena jakinaraztea arloan eskumena duten administrazio publikoei, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena eman dezaten.

— Jendaurreko saioa, hasierako onespeneren aurreko egunetan edo jendaurreko erakustaldiaren lehenengo 10 egunetan egingo dena. Aldaketaren edukia azalduko da, dokumentua kontsultatzeko bitartekoak, bilera partikularretarako aurretiazko hitzordua eskatzeko aukera, alegazioak egiteko bitartekoak, eta entregatzeko bideak eta epea.

— Alegazioak jasotzea.

— Hasierako onespeneren ondoren jendaurrean jartzearen ondorioz aurkeztutako alegazioei buruzko behin betiko txostena bidaltzea, behin-behinean onesteko aurkezten den HAPOn alda[□] ketaren testu bateginean txertatzeko.

— Partaidetza prozesuaren laburpen txostena, dokumentuari behin-behineko onespenean erantsiko zaiona.

Oion, 2024ko martxoaren 3a
Alkatea, José Manuel Villanueva Gutiérrez.